

**BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIAREKIN BILERA**
REUNIÓN CON LA DIPUTADA GENERAL DE BIZKAIA

2024-01-22 Vitoria-Gasteiz 22-01-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Arratsalde on!

Bizkaiko Ahaldu Nagusiak horrela eskatuta, bilera izan dugu gaur arratsaldean Ajuria Enean. Bilera honen helburua zehatza zen: Euskadi eta Bizkaiko egoera orokorraz hausnarketa partekatua egitea.

Duela sei hilabete lehen bilera bat izan nuen hiru Ahaldu Nagusiekin eta bertan ezarritako irizpideei jarraipena eman diogu.

Betidanik defendatu dugu erakundeen arteko kolaborazioa erabatekoa izan behar duela eta ezinbestekoa dela. Arrazoia argia da: diagnostiko partekatua eginez, errazago izango dugu arazoei eta betebeharrei modu egokiagoan aurre egitea.

Jorratu ditugun gaiak izan dira, besteak beste:

- Egoera ekonomiko orokorra eta datozen urteetarako prebisioak, batez ere industria arloan,
- Zerbitzu publikoen eta Gizarte Kohesioaren ikuspegia; Erronka demografikoa, Gazteria edo Zaintza arloak aztertuz,
- Kultura edo euskararen arloan ditugun proiektuak; edo
- Ingurugiroaren arloan garatzen ari garen estrategia partekatua.

Aldi berean, Bepiztu eta Lehentasunezko Jarduketa Eremuetan garatzen ari garen ekinbideen egoera ere partekatu dugu. Martxoaren lehen hamabostaldian Kontseilu Errektorea deituko dugu.

Alde batetik, Enkarterri, Ezkerraldea, Meatzaldea edo Aiaraldean egiten ari diren inbertsioak. Bestetik, Debabarrena eskualderako prestatzen ari de Plan estrategikoa eta, azkenik, Busturialdea eskualderako planteatu daitekeen proposamena.

Ekinbide hauen helburua da egoera sozio-ekonomikoa indartzea eta aukera berriak sortzen laguntzea. Orain arte partekatutako ibilbidearen balorazioa positiboa izan da.

Agradezco a la Diputada General de Bizkaia la información que me ha aportado en relación a la situación de su Plan de Gobierno para la presente legislatura y los proyectos más relevantes que esta institución está desarrollando. Esta reunión da continuidad a la mantenida el pasado 13 de julio con las dos Diputadas Generales de Bizkaia y Gipuzkoa y el Diputado General de Araba.

En aquel momento pusimos sobre la mesa el modelo de gobernanza multinivel, así como el impulso a los proyectos estratégicos de País.

Hoy hemos realizado un análisis sobre la situación actual de Euskadi y el Territorio Histórico de Bizkaia, compartiendo también la visión del escenario actual y las prioridades a acometer de manera conjunta.

La pasada semana tuvimos la oportunidad de compartir la visión “Euskadi 2040”, un trabajo orientado a abordar desde la colaboración el reto de la competitividad para el bienestar en nuestro País.

La colaboración interinstitucional, unida a la visión compartida con los agentes económicos y sociales, es fundamental para poder dar la mejor respuesta posible a las necesidades de la ciudadanía.

Sobre esta base, hemos realizado un análisis de los puntos fuertes y los ámbitos de mejora en nuestras relaciones, prestando especial atención a los proyectos conjuntos que estamos desarrollando a través de Berpiztu y las Zonas de Actuación Preferente. De hecho, el próximo mes de marzo convocaremos el Consejo Rector de este año.

En la actualidad, tenemos en marcha actuaciones en Ezkerraldea, Meatzaldea, Enkarterri y Aiaraldea. Estamos elaborando el Plan Estratégico de Debabarrena y, se ha planteado también la oportunidad de poder aplicar esta dinámica de trabajo a la comarca de Busturialdea.

Nuestra valoración del grado de cumplimiento de los compromisos adquiridos es positiva. También apreciamos las ventajas de este modelo de colaboración entre las instituciones públicas y los agentes económicos y sociales del territorio.

Hau izan da beraz gaur mantendu dugun bileraren edukia eta, amaitzeko, Bizkaiko Ahdun Nagusiaren gertutasuna, prestutasuna eta jarrera eraikitzailea nabarmendu eta eskertu nahi ditut.

Eskerrik asko!